

AMERIKANOEN GAZTAREN GARAI HAI EK..



Amerikanoen gazta koipetsu, biguinaren eta behirik ezagutu gabeko esnearen garaiak ziren. Pertzaka haundi batetan mañeatutako esne beroa hartzen genuen plastizkoko basoez eta zurrutadaka edaten. Gure haurtzaroko gosariek ez zuten Orixe hain ongi deskribatu dituen talo eta artahi idilikoekin zer ikusi haundirik.

Eta eskola garaiak gogoratu behar ditudanean, gazta biguin eta esne lodi harren usaina sudurretaratzen zait Marcel Prousti txikitako magdalenak sudurretaratzean «En busca del tiempo perdido» idaztea ganbaratu zitzaionean bezalatsu.

Usaina eta arrantzaleen kofradian genuen eskolako leiho zabaletatik sartzen zitzaigun argia. Gure klima hain euritsua eta grisa izanik, argia gogoratzen dut nik. Maiatza ingurua, orain baino gas-oil guttiago zuen Oria ibaiko ur gardenetan. Antxu ugariez zetozen itsasuntzien masta luzexkak ikusten genituen leihotik eta masten ibilaldiari kaso gehiago egiten genion irakaslearen hitzjariorari baino, kaskarrekoen bat jasotzen genuen arte behintzat.

Hogeitaka urte pasa dira harrez geroz, eta nire lanbideak gela berdinerara eraman nau bertan irakasle praktikak egiten ari den irakaslegaiak ikustera. Usainak eta argia gogoratu ditut berriro.

Pare bat orduz egon naiz gelan. Eta nire buruari zer desberdintasun aurkitzen dituen galdetu diot.

Norbaitek pentsa dezake desberdintasunetako bat euskararena dela. Baina ez da egia. Genuen irakaslea —eta bizi da oraindik— euskalduna zen, Ormaiztegikoa. Eta euskaraz ere hitzegiten zigun, euskaraz komunikatzen zen gurekin arazoren bat genuenean, euskaraz gurasoekin gurekin karrerarik ezin zuela atera adierazi behar zuenean, euskaraz errita egin behar zuenekotan. Eta gure lagunarteko hizkuntza bakarra ere euskara genuen. Ez genekien artean besterik... Orain errekuperatu nahi nituzkeen haur jolasak («Banderaka» ibiltzen ginen sarritan), kontatzeko sistemak («Don, don, kikiikon...»), jolasgaraioko haserre eta pozak euskaraz genituen.

Orduan ere bagenuen futbolaren influentziarik. Konturatu besterik ez dago Rio de Janeiroko mundialaren garaian, Zarra mitikoaren oroitzapenean, Canito, Mauri, Maguregi... zerrenda ezagunaren errezitapenean bizi ginela. Baina ez ginen futbolera jolasten ez bait genuen nola jokatzeko erakutsiko zigun telebistatik. Baina kromoak kolekzionatzen genituen, hori bai. Nik neuk kolekzio osatu xamarra nuen eta Atletico de Madrideko atezainaren —Coboren— kromoa falta zitzaidan. Mundu guztiari Coboren kromoa eskatuz geratu nintzen Cobo ezinez eta oraindik ere nire adineko oriotarrek Cobo bezala ezagutzen naute. Eta markes batek baino ordain aberatsagoa jasotzen dut nire tituluaz.

Oroitzapen bisualak, usainezkoak eta hitzezkoak beraz. Eta hitzezko oroitzapenetan, bi ditut gaur egun ere indar guztiz ez-tarriratzen zaizkidanak. Irakurketa liburu batetan zirko baten gorabeherak kontatzen zitzaizkigun eta bertan **titiritero**, **titirimundi**... espresioa irakurtzen genuenean, irripar gaiztoak zuzentzen genion aldameneko ikaskideari. Gogoratzen naiz titiritero hitz harrek ez zidala bere esanahaia sujeritzen. Behin, udako egun sargori batetan burutik oso beteak ez zegoen —ala beteak ote zegoen?— emakume bat bere etxeko balkoira irten zen bularrak zintzilik, aire geldiari eskainiz. Eta bular erorixe haiek gogoratzen nituen nik **titiritero** irakurtzerakoan. Eta hortik aldamenekoari zuzentzen nion irribarrea.

Bigarren oroitzapen berbala geografiako klasekoa da. Irakasleak **rio** eta **ria** hitzen arteko desberdintasuna agertu zigun eta inoiz ongien ikasi dudana ikasgaia izan da egun hartako hura. Leihotik begiratzea aski bait nuen desberdintasunaz jabetzeko.

Eta orain, nire lanbideak pedagogiaz erreflexionatzera berrartzen nauen honetan, nire lehendabiziko ikasgai pedagogikoa zortzi urterekin jaso nuela deritzat. Eta pedagogia gertuko gauzetan eta egoeran oinarritu behar dela lehendabiziko ikasi nuen zortzi urte besterik ez nituenen.

Anjel Lertxundi